



Antton Hariñordoki

Baigorri, 1970. Banka herrikoa da. Historia eta euskal filologia ikasia. AEKn eta Seaskan aritu zen irakasle. Uztaritzeko Ikas-en-dokumentazio zentro pedagogikoa- ari da lanean orain. Demoak (Demokrazia Euskal Herriarentzat) taldeko bozeramailea da. Demoek sustatzen duten desobedientzia zibilaren eta bortizkeria ezaren karietara solastatu gara berarekin.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

«Preso kritikoaren ahotsa entzun behar da eztabaida sustatzeko»

Mugimendu abertzalean engaiatu zinen gaztetatik. Zure burua libertariorzat jotzen duzu, dakigunez.

Libertarioa izateak badu bere garrantzia nire bilakaeran. Libertarioa hamasei urte nituela bihurtu nintzen. Historia ezagutzeko grinak eta irakurketak bideratu ninduten ildo horretara. Militante izanda, iraultza ezberdinez irakurtzen hasi nintzen. Ezkerra askotan dogmatikoa bilakatzeko zela ohartu nintzen. Gorriek usu iraultza irabazi ondotik –eta iraultza garaian ere bai–, diktadura ezartzen zutela. Errusiako 1917ko iraultzaren ondoko estalinismoa lekuko. Libertarioek hierarkiak baztertzen dituztela ikasi nuen, ez dutela behin betiko agintea onartzen. Esaterako, Fidel Castro 50 urteren buruan iraultzaren gidaritzan egon izanak

libertarioa harrizten du, ni biziki kolpatzen nau bederen.

Gaur ere halatsu pentsatzen duzu.

Bai, asanbleak manatu behar duela eta ez abangoardiak. Askatasuna da balore nagusia. Askatasunak eraginkortasunean laster aitzinatzea galarazten digula irudi du, baina ororen buru, askatasunean hazitako mugimenduek gizarte hobeki eraikitzen laguntzen dute. Eraginkortasunaren mesedean askatasuna baztertzen bada, behin borroka irabazirik nola itzuli askatasunera?

Patxa taldeko kide izan zinen gazte garaian. Egun Demoak taldeko kide eta bozeramailea zara. Zergatik Demoak? Zertarako?

Demoen hautua aipatu ditudan nire ideien segidan heldu zen, Euskal

Herriko talde armatuaren estrategia militarra kritikatzetik. ETAk *Yoyes* hiltzea eta Imanol kantariak bere alde azaltzeagatik jasan zuen tratua onartezina iruditu zitzaidan. Gazte mugimenduan ari nintzen, borroka armatua “sostengatzen” nuen. Estrategia militarren eraginkortasunaz eta balore etikoez eztabaida biziak ukan genituen. 1995ean, ETAk Gregorio Ordoñez hil zuelarik beste jauzi bat izan zen. 25 urte nituen, mugimendu abertzalean burubelarri ari nintzen. PPKo hautetsien eta kazetarien hilketak ugaldurak ziren. Urte batzuk lehenago faxistek Josu Muguruza hil zutelarik, nire “mugimendu”ko hautetsia hil zutela sentitu nuen. Hautetsi bat hiltzen duzularik sinbolikoki bere hautesleak hiltzen dituzu. “Haiek egin zuten berbera egiten diegu guk.

Etsaia ahuldu beharrean azkartuko dugu” pentsatu nuen.

Borroka armatuaren bilakaera horrek militante abertzale zenbaitengan eragina izan du, antza.

Hain ziur. Komunikabideen eta kazetarien aurka jotzen duten mugimenduak gutxitan dira progresistak, gehienetan “erreakzionarioak” dira. Gainera, talde iraultzailearen eraginkortasunaren kontrakoa da erabat. Kazetari bat jotzen duzularik bere aldeko elkertasuna zure kontra doa. Garai haren ondoren Lizarra-Garaziko Akordioa heldu zen, nik sinetsi nuen ekimenean. Hots, bide zibila irekitzeko aukera zen. Bide zibila gauzatzeko sortu ziren Demoak.

Nola oroitzen duzu esperientzia?

Demoen ideia ETAren su-eten garaian mamitu zen. Espiritua desobediencia zibila garatzea zen, batzuetan legearen aurka joanez, baina gure eskubideen legitimotasunaren defentsan bortxa erabili gabe. Molde horretako ekintzak egin genituen, eredia landu genuen eta oihartzun handia ukan zuten. Ekimena alimaleko abiaduran hasi zen eta gero moteldu zen arrazoi ezberdinak tarteko: lana, errepresioaren higadura... Bestalde, su-etena bukatu zen. Batzuek Demoak utzi zuten beste borroka ildo batzuen urratzeko.

SNCFeko geltokien aferak oihartzun handia izan zuen.

Baina ez genuen gure xedea erdietsi, azkenik ez zituzten tren geltokiak elebitan ezarri. Eramandako borrokaren ondoren porrot gisako bat sentitu zen, baina ez zen arras horrela izan. Askok ikasi genuen, gure borroka moldea areago ezagutarazi genuen.

Egun berriz zertan dira Demoak?

Aspaldi honetan bildu gara berriz ere, taldetxo bat eztabaidan ari gara. Aktibitatean segitzea erabaki dugu, baina kanpaina zabalik antolatuta gabe. Aktualitateari segituz gauza puntualak eginez, horrek jendarte dinamika berpiztu dezakeelakoan. Funtsezkoa bortizkeriarik gabeko dinamika sustatzea da. Antolakuntza landu eta jendea motibatu behar

dugu, lehenik gure taldekoak, eta gero agian inguruko jendeak hurbilduko dira. Laborantza Ganbararen aldeko sostengua azpimarratuko nuke egun, desobediencia zibilaren bidean ari da gauzatzen, gure bidea eta eskakizunetako bat da.

Laborantza Ganbara auzipetuta dago eta Mixel Berhokoirigoin espetxeratua izateko arriskuan.

Lehenik, Iparraldean laborantzaren bi eredu elkarren kontra ari dira: Euskal Herriko Laborantza Ganbararena (EHLG) eta Paueko *Chambre d'agriculture* delakoarena. EHLGren eredia laborantza iraunkorra da, bere proiektua Euskal Herrikan kanpo ulertua eta sostengatua da. Auzipetzeak Estatuaren ahulezia agerian utzi du. Izenetik hasita: Estatuarentzat euskarak ez du izaterik, orain alta, izorratzeko euskara existitzen da. Paueko Ganbara ofizialki

Chambre d'agriculture da. Sekula ez dute Laborantza Ganbara denik erran, ez dago elebitasunik ez itzulpenik. Bestalde, Estatuak Laborantza Ganbara debekatzen badu administrazioari dagokion lana egiten duela koan, elkarte sozial andana debekatu beharko du. Auzi hau irabaziko dugu, ziur naiz. Atxikimenduak asko dira. Gure borrokak Euskal Herrira mugatu ohi dira eta kanpokoek ez dute ulertzen. Oraingoan ulertzen dute. Laborantza gaia Euskal Herriko eta mundu osokoa baita.

Orain aste batzuk Txelis, Pikabea, Gisasola eta Urrusolo presoan aldeko ekimena burutu duzue Mugerren. Azaldu iezaguzu zer izan den berau.

Hasteko, Demoek preso guztiak sostengatzen ditugula azpimarratu nahi dut. Gure eskakizun nagusietako bat “Euskal Presoak Euskal Herrira” da. Eskubide bat da. ETA-

“Askatasunak eraginkortasunean laster aitzinatzea galarazten digula irudi du, baina ooren buru, askatasunean hazitako mugimenduek gizartea hobeki eraikitzen laguntzen dute”.



ren estrategia militarrekin ados izan gabe ere, sostengatzen ditugu. Lau preso hauek publikoki adierazi dute ez daudela ados oraingo estrategia militarrekin. Beren mezuari oihartzuna eman nahi izan diogu.

Zer balorazio egin duzue ekimenaren ondoren?

Ez dugu balorazio publikorik egin nahi. Ekimena burutu dugu preso horiek tratatuak izan diren moldearengatik inarrosiak izan garelako. Estrategia militarri buruzko kritika politikoa egin dute eta horri politikoki erantzun beharrean irainez erantzun zaio. Hori debatea saihesteko moldea besterik ez da, kritika politikoa kritika politikoz erantzun behar zaio, iritzi guztiek adierazpen askatasuna merezi dute. Guk ez dugu bereizketarik egiten presoaren artean, ez dugu ahanzten adierazpen askatasunaren urratzaile handiena Euskal Herriarentzako Espainiako Estatu delako ilegalizazio politikarekin, baita Frantziako Estatu ere. Bi estatuei adierazpen askatasuna exijitzen diegu, baina ETari eta ezker abertzaleari ere bai. Preso kritikoaren ahotsa entzun behar da, askatasuna eman behar zaie eztabaida sustatzeko.

"Bi estatuei adierazpen askatasuna exijitzen diegu, baina ETari eta ezker abertzaleari ere bai"

Espainiako Gobernuak presoekin edozein ekimen erabiltzen du.

Bistan da. Horregatik kritikatzeko ditugu barne ministro Perez Rubalcabaren jukutriak. Bere hitzekin preso horien gogoetak balio gabetu ditu, baita erabili ere. Kasu honetan, ezker abertzaleko sektore gogorrenari hutsa eman dio eta presoaren analisiaren balioa kendu. Jendeak ez ditu beren gutunak irakurriko, alderantziz: "Hurbildu dituzte? Hara, tratatu egin dute Estatuarekin". Estatuak ETA indarrean nahi du, baina

ahula. Horri esker justifikatzen du Euskal Herriaren autodeterminazioaren ukapena. Ondo baino hobeto ikasi du ETaren borroka armatua kudeatzen. Garai batean ez zekien beharbada, baina gaur egun bai. Errentagarria ateratzen zaio hauteskudeetan. Frantziako Estatu ez da eredu, kasu! Baina Frantziar alderdien programetan gai sozialak nagusitzen dira hauteskudeetan, Espainiakoetan berriz ETA da gai nagusia.

IK erakundea aspaldi gelditu zen. Orain Irritzi-ren –edo beste hainbat talderen– atentatuak izaten dira. Zer iritzi duzue Demoek hone-lako ekintzez?

Ekintza armatuak Iparraldean diren arazoaren agerkeri dira, ezin da ukatu. Euskaldunen eskakizunei ez zaie biderik ematen eta batzuk desesperatzen dira. Etxebizitzaren eta luraren egoera etsigarria da eta batzuek bide militarra hautatzen dute. Alabaina, zergatia ulerturik ere, zertarakoan dugu arazoa. Arrazoi izanik ere, ekintzek zer ekarriko dute? Borrokaren helburuarentzat bitartekoak kaltegarriak edo lagungarriak diren aztertu behar da. Borroka armatuak ez dio botereari kalterik egiten, alderantziz, Estatu lasai bizi da borroka armatu honekin. Sarkozy eta Alliot-Mariek beren diskurtsoa errepresioaren gainean eraikitzeke erabiltzen dituzte ekintzak. Alain Ducasse sukaldariaren afera ikusi besterik ez da. Kalaka ostatuaren afera horri esker justifikatu dute, baita Batasunaren kontrako errepresio ere.

Badago zer ikasirik.

Bai. Adibidez, ez da ahanzi behar: Euskal Herriko lurrak saltzen badira, arrazoi nagusia euskaldunek saltzen dituztelako da. Hori ere funtsezko arazoa da. Lan pedagogikoa egin behar da. Laborariak lurrak horren garesti ez saltzeko konbentzitu behar ditugu. "Lurra behin saldua betiko galdua" erran zaharra oroitarazi behar dugu. ■

www.argaia.com
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.

Bidean

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

09

www.nafarroakotxapelketa.com

Azken-laurdena:

Urtarrilak 31
Auritz
Kultur Etxea
17:30

Jon Barberena
Jon Elizetxe
Bittor Elizagoien
Aimar Karrika
Alazne Untxalo
Saioa Alkaiza

Nafarroako
Bertsolari
Elkartea

Laguntzailea:
Argia